

2019/04/01ean EGINDAKO EZOHIKO OSOKO  
BILKURA .

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO  
DE LA CORPORACIÓN. Día 01/04/2019

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría  
Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Uribe Beristain  
Maite Zubiza ATxaga  
Aitor Zubizarreta Alegría  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Maidier Otamendi Tolosa  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2019ko apirilaren 1a, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Josu Ezkurdia Santamaria buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bilduda Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Jose Ramon Zubizarreta.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 1 de abril de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Josu Ezkurdia Santamaría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Joser Ramón Zubizarreta.

### **1.- ALKATEAREN KOMUNIKAZIOAK.**

2019ko martxoaren 25era arte Alkatetzak hartutako erabakien berri eman da, eta berriaz 4/2019, 5/2019, 6/2019 eta 7/2019 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiaren berri.

### **2.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA.**

Ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan onesten dituen abenduaren 21eko 24/2018 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan eta ordainsarien eta luzapenari buruzko beste alderdi batzuen inguruan 2019 ekitaldirako premiazko aurrekontu-neurriei buruzko otsailaren 14ko 2/2019 Legearen 2. artikuluan jasotakoaren babesean, Udalbatzarrak, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

1. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 2,25eko igoera 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.
2. Igoera horiek apirilera nominan ordaintzea.

### **3.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboak eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

Hiri-Lurren Balio Igoeraren gaineko Zergaren kitapenak.

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
090 2018 01 106	123,39	URCELAY GURIDI ANAI- ARREBAK	MINUSBALIA
090 2018 01 105	205,64	URCELAY GURIDI ANAI- ARREBAK	MINUSBALIA
090 2018 01 094	414,25	RIBEIRO COSTA LUCI	MINUSBALIA
090 2018 01 110	414,25	VINAGRE CARRASCO JOSE IGNACIO	MINUSBALIA
090 2018 01 107	476,96	URIBE-E ANDETXAGA JOSE ANTONIO	MINUSBALIA

Isunak:

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
M2008 32	30,00	LARRAÑAGA GORROTXATEGI ASIER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2008 37	30,00	ERRASTI OTAÑO JOSEBA	SUSPENDITUTAKO ISUNA (UDALTZAINAK AURREZ KENDUTAKOA)
M2008 46	30,00	GUTIERREZ ANTOLIN ROGER LUIS	PROZEDURA AMAITU GABE
M2008 78	30,00	ZUBIZARRETA EROSTARBE KOLDO	SUSPENDITUTAKO ISUNA
M2008 81	30,00	AGEA COCERA MERCEDES	SUSPENDITUTAKO ISUNA (AHOZKO ALEGAZIOA)
M2008 93	30,00	GALDEAN AURELIAN MIHA	SUSPENDITUTAKO ISUNA (JAKINARAZPENA GAIZKI)
M2008 138	30,00	FIGUEIREDO LOPES JOSE ANTONIO	PROZEDURA AMAITU GABE
M2008 139	30,00	EUROPCAR IB SA	SUSPENDIDUTAKO ISUNA (JABEA ATZERRITARRA)
M2008 179	30,00	CONSTELA APORTELA NESTOR SERG	PROZEDURA AMAITU GABE
M2008 266	30,00	ALTUNA RUIZ DE AZUA ROSA MARIA	SUSPENDITUTAKO ISUNA (AKATSA)
M2008 267	30,00	LAGE GURIDI JUAN LUIS	SUSPENDITUTAKO ISUNA (AKATSA)
M2008 268	100,00	LAGE GURIDI JUAN LUIS	SUSPENDITUTAKO ISUNA (AKATSA)
M2008 304	30,00	KODDI EBANISTERIA SL	PROZEDURA AMAITU GABE
M2009 28	30,00	PEDROSA MÁRQUEZ ANDER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 30	30,00	GALLO CACHO M.LUZ	SAIATU BAINA EZIN

2004 / 05/ 10

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
			ENBARGATU
M2009 31	30,00	MARTÍNEZ NAFARRATE EGOITZ	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 68	30,00	NIETO PÉREZ DANIEL	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 92	30,00	MARTÍNEZ NAFARRATE EGOITZ	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 98	30,00	FRANCHCO CID MARIANO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 104	30,00	PIGESAL, SA	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 107	30,00	ERRASTI HORRILLO IKER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 108	30,00	GABRIEL ANGELO RENATO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 125	30,00	GÓMEZ GÓMEZ ANGEL	AHOZKO ALEGAZIOA ONARTUTA
M2009 131	30,00	DISTRIBUCIONES LOPETEGUI,SL	PROZEDURA AMAITU GABE
M2009 133	30,00	ERRASTI HORRILLO IKER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 194	30,00	SOUSA RODRIGUES MARTA ANDREIA	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 195	30,00	EUROPCAR, IB SA	GIDARIA ATZERRIKO HELBIDEAREKIN
M2009 200	30,00	LEGORBURU SAEZ DE MATURANA JA	PROZEDURAN AKATSA
M2009 217	30,00	DECEBAL ,, NICULA	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 221	30,00	ERRASTI HORRILLO IKER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 242	30,00	TIRADO VASCO VICTOR HUGO	PROZEDURA AMAITU GABE
M2009 243	30,00	VICENTE SÁNCHEZ ISIDRO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 244	30,00	NIETO PÉREZ DANIEL	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 252	30,00	AGUIRREGABIRIA ALTUNA M.ARANZA	SUSPENDITUTAKO ISUNA (AKATSA)
M2009 268	30,00	FRANCHO CID MARIANO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 269	30,00	GABRIEL ANGELO RENATO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 274	30,00	LLOPIS COZAR FRANCISCO	PROZEDURA AMAITU GABE
M2009 291	30,00	GABRIEL ANGELO RENATO	SAIATU BAINA EZIN

2004 / 05/ 10

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario

KONTZEP/EPEA/ZENB.	ZENBATEKOA €	ZERGADUNA	ZERGATIA
			ENBARGATU
M2009 339	30,00	VIAS Y CONSTRUCCIONES SA	PROZEDURA AMAITU GABE
M2009 347	30,00	ERRASTI HORRILLO IKER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 354	30,00	FERNÁNDEZ DELGADO SERGIO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 360	30,00	GABRIEL ANGELO RENATO	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 361	30,00	ALBERDI ARABAOLAZA ARITZ	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 362	30,00	ERRASTI HORRILLO IKER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2009 363	30,00	ARBILLA JIMÉNEZ FRANCIS J.	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 1	30,00	PAREDES PAREDES RENELMO WILFR	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 66	30,00	SOUSA RODRIGUES MARTA ANDREIA	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2010 67	30,00	TEIXEIRA PACHECO ANTONIO MANUE	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2010 75	30,00	ZYREK ,, JAN	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 99	100,00	SOUSA RODRIGUES MARTA ANDREIA	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2010 110	100,00	TEIXEIRA PACHECO ANTONIO MANUE	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2010 136	30,00	SEGOVIA FELGUEROSO JUAN MANU	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU
M2010 146	30,00	MARTÍNEZ PÉREZ PURIFICACIÓN	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 215	30,00	FIDALGO ALONSO ROGELIO	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 219	30,00	IVANIN ,, SERGIY	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 224	30,00	FIDALGO ALONSO ROGELIO	PROZEDURA AMAITU GABE
M2010 283	30,00	ERRASTI HORRILLO IKER	SAIATU BAINA EZIN ENBARGATU

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailtza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatuzat edo baliogabetuzat deklaraturakotako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**4.- 2017an EGITEKO PROGRAMENTZAT ETA JARDUERENTZAT DIRU LAGUNTZAK DIRELA-ETA ESTATUKO ABOKATUTZAK JARRITAKO KASAZIO-ERREKURTSOAN AGERTZEKO EPAKETA.**

2018ko abenduaren 19an EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzien salak emandako epaiaren (468-/2017 RC-An Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiaren 2018ko ekainaren 14ko epaiaren aurka Udal honek jarritako errekurtsoa onartzen duena) aurka Estatutako Abokatutzak jarritako kasazio-errekurtsoa dela-eta jasotako epaketaren aurrean, Udalbatzarrak, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

2018ko abenduaren 19an EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzien salak emandako epaiaren aurka Estatuko Abokatutzak jarritako kasazio-errekurtsuan agertzea Madrileko Antonio Sanchez Jauregui Alcaide prokuradorearen bidez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letraduaren zuzendaritzapean.

**5.- ARETXABALETAKO UDALAREKIN HITZARMENA UDAL BIETAKO 12-16 URTE ARTEKO GAZTEENTZAKO PARTE HARTZE PROZESUA ANTOLATZEKO.**

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Proposatutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea Aretxabaletako Udalarekin udal bietako 12 eta 16 urte arteko gazteentzako parte hartze prozesua kontratatu eta finantzatzeko. Hitzarmenaren klausulak honako hauek dira:

**KLAUSULAK**

**LEHENA. HELBURUA.**

*Hitzarmen honen helburua da sinatzaileen arteko lankidetzaren zehaztea ondorengo programa garatzeko:*

*Eskoriatzako eta Aretxabaletako 12-16 urte arteko nerabeentzako parte hartze prozesua nerabe horiei zuzendutako jardueraren eta programaren zehaztu eta garatzeko.*

*Proiektu edo programa hori gauzatzeko kostua, guztira, honakoa da gutxi gorabehera: 29.700 euro gehi % 21eko BEZaren 6.237 euro; guztira, 35.937 euro.*

## **BIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

*Udal biek lankidetzaz hitzarmen hau onartzen eta formalizatzen dute Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1.36 artikulua aitortzen dien eskuduntzen babesean.*

*Lankidetzaz hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoei lotuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikulua aurreikusitakoaren babesean antolatzen da*

## **HIRUGARRENA. ALDE BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISKO EKONOMIKOAK.**

*Administrazio espedientearen justifikatuta gelditzen da hitzarmen honek ez duela kontratu izaera, nahiz eta zerbitzu kontratu administratibo bat egingo den hitzarmenaren babesean.*

*Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua aurreikusitakoaren arabera, hitzarmen honetan sartzen diren finantza konpromisoak jasagarriak dira finantza aldetik, eta alde biek aitortzen dute hitzarmen honen indarraldirako beraien gain hartutako konpromisoari aurre egiteko gaitasuna dutela.*

*Finantza konpromiso horiek honako hauek dira:*

*Gutxi gorabeherako kostu osotik, hau da, 35.937 eurotik (BEZ barne), 23.000 € Aretxabaletako Udalaren kontura izango dira, eta, 12.937 €, Eskoriatzako Udalaren kontura.*

*Zentzu horretan, eta Aretxabaletako Udalak zerbitzu kontratu administratiboa lehiaketara atera aurretik, Eskoriatzako Udalak berari dagokion 12.937 euroko gastua baimendu beharko du Aretxabaletako Udalak dagokion kontratua lehiaketara atera ahal izateko.*

*Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartuta, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondorioz sortutako gastuak baino.*

### *Aretxabaletako Udalaren betebeharrak:*

*1. Aretxabaletako Udalak konpromisoa hartzen du 23.000 euroko ekarpen ekonomikoa egiteko.*

*2.- Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean eta kontura, konpromisoa hartzen du zerbitzu kontratu administratiboaren lehiaketa, esleipena eta formalizazioa egiteko udal bietako 12-16 urte arteko nerabeentzako parte hartze prozesu bat garatzeko, betiere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen jasotako jarduteko oinarriko printzipioen pean.*

*3. Aretxabaletako Udalak Eskoriatzako Udalarari jakinaraziko dizkio aipatutako kontratuaren lehiaketa aurretik, lehiaketan zehar eta lehiaketa ondoren egindako jarduerak.*

4. Aretxabaletako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: parte hartze teknikaria

5. Aretxabaletako Udalak, udal bien izenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019ko urtarrilaren 17ko GAOn argitaratutako Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei zuzendutako diru laguntza deialdiaren babesean diru laguntza eskatzeko konpromisoa hartzen du.

6.- Aretxabaletako Udalari dagokio jasotako diru laguntzaren zuriketa egitea eta beharrezkoa den dokumentazio guztia Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztea.

Eskoriatzako Udalaren betebeharrak:

1. Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du 12.937 euroko ekarpen ekonomikoa egiteko. Ordainketa gehienez ere hamar egun balioduneko epean egingo da Aretxabaletako Udalak ordainketa egiteko eskatzen dion egunetik kontatzen hasita.

2.- Eskoriatzako Udalak kontratua betetzeko garrantzitsuak diren baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak egiten lagunduko du.

3.- Eskoriatzako Udalak honako hau izendatzen du kontratuaren arduradun: gazteria teknikaria

Finantza konpromisoak honela gelditzen dira zehaztuta:

Lizitazioaren ondorioz adjudikazio prezioa txikiagoa bada, udal bakoitzaren ekarpena proportzionalki gutxituko da. Honen ondorioz, Eskoriatzako Udalak egindako 12.937 €-ko ekarpenetik dagokion kopurua itzuliko zaio.

Aretxabaletako Udalak Eskoriatzako Udalari jakinaraziko dizkio hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen eta hitzarmenaren diru-zenbatekoan eragina izan dezaketen gertakariak (aldaketak, zerbitzu osagarriak, gehiegikeriak likidazioetan, prezioen berrikuspenak eta abar). Halaber, horrela gertatutakoan, dagokion aurrekontua aldatzeko beharrezko neurriak eta erabakiak hartu beharko dira.

Kontratuan gerta daitezkeen eta hitzarmen honen klausuletan ezarrita dauden prezioetan eragina izan dezaketen kontratuaren gorabeherak udal bakoitzari dagokion portzentajearen arabera ordainduko dira.

**LAUGARRENA. JASOTAKO DIRU LAGUNTZA.**

Diputatuen kontseiluaren ebazpena irteten denean, emandako diru laguntzaren banaketa ondorengo portzentajearen arabera izango da herri bakoitzarentzat:

Aretxabaletako Udala : %64a

Eskoriatzako Udala: %36a



#### **BOSTGARRENA. SOLASKIDEAK.**

Udal bakoitzak honako teknikaria izendatzen du hitzarmen honekin zerikusia duten gorabeherei buruzko informazioa trukatzeko:

- Aretxabaletako Udala: Parte hartze teknikaria
- Eskoriatzako Udala: Gazteria teknikaria

#### **SEIGARRENA. APLIKATU DAITEZKEEN ONDORIOAK ALDERDIETAKO BAKOITZAK BERE GAIN HARTUTAKO BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK BETETZEN EZ BADITU.**

Alderdi sinatzaileek euren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeak, hitzarmen honetan jasotzen direnak, lankidetzaren hitzarmen hau suntsitzea ekarriko du, alde aurretik beste aldeari entzunaldia bermatuko dion aurkakotasun-prozedura egin ondoren.

#### **ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Lankidetzaren hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduerak amaitu arte, eta edozein modutan ere, ez du indarririk izango 2019ko abenduaren 31tik aurrera.

Ezingo da isilbidezko luzapenik egin.

#### **ZORTZIGARRENA. HITZARMENAREN AZKENTZEA ETA HORREN ERAGINAK.**

Hitzarmen hau azkenduko da edo bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzean.

Suntsiarazteko arrazoiak dira:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea.
- b) Alderdien ahobatezko erabakia, hitzarmena onartu zuen organo eskudunaren bidez.
- c) Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, aldeetako batek besteari errekerimendua jakinarazi ahal izango dio ez betetzat jotzen dituen betebeharrak eta konpromisoak epe jakin batean bete ditzan.

Errekerimenduan adierazitako epea igarota ez betetzeak bere horretan jarraituko balu, errekerimendua egindako alderdiak beste alderdiari jakinaraziko dio hitzarmena suntsitzeko arrazoi dagoela eta hitzarmena suntsituzat joko da. Hitzarmena arrazoi horregatik suntsitzeak ez du ekarriko eragindako balizko kalteengatik kalte-ordainik ordaindu beharrik.

- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.

e) Antolamendu juridiko aplikagarrian aurrez ikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

#### **BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA INTERPRETATZEKO ERREGIMENA.**

Kontratua interpretatzerakoan, aldatzerakoan, erabakitzerakoan eta horren ondorioz sor daitezkeen auzigaiak Aretxabaletako Udalbatzarrak ebatziko ditu. Ebazpen horiek administrazioa bidea amaituko dute, eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoari jarraiki; hala ere, interesdunek, hala nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute.

Esandakoarekin alde biak ados egonik, hitzarmena sinatzen dute, bakoitzak bere ordezkartzan, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

**Bigarrena.-** 12.937 euroko gastua baimentzea 0500.422.337.20.01 aurrekontu aplikazioaren kargura, aipatutako kontratua sinatuta Udal honek hartzen dituen betebeharrak ekonomikoetara aurreratu egiteko.

**Hirugarrena.-** Hirugarren Alkateorde Josu Ezkurdia Santamaria jaunari baimena ematea Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan erabaki honen gai den lankidetzaren hitzarmena onartu eta sinatzea.

#### **6.- ELORRETAKO PLAN PARTZIALEKO B2 LURZATIAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK SUSTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA EBAZTEKO ERABAKI PROPOSAMENA.**

2010eko ekainaren 9an Eskoriatzako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zen Elorretan zuzkidura-alojamenduak sustatzeko.

Udalbatzarrak, 2018ko martxoaren 22a egindako bilkuran, erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin sinatutako hitzarmena hutsaltzea, uste baitzuen oraindik bazirela lurzati eraikigarriak, eta baita amaitu gabe dauden eraikinak ere, eta ez zen zuzentzat jotzen lurzoru gehiago hartzerik aipatutako etxebizitzak egiteko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eskoriatzan dagoen babes publikoko etxebizitza eskaerari buruz duen informazioa aztertuta, Sail hori bat dator Udalak egindako diagnostikoarekin. Horregatik, aipatutako lankidetzaren hitzarmena ebatzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak 2019ko urtarrilaren 22an.

Horiek horrela, eta Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, 5 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 4 eta EEEko

1) eta bertaratutako gainerako 5 zinegotziak abstenituta (EH BILDUKo 4 eta IRABAZIKo 1), honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Elorretako Plan Partzialeko B2 lurzatian zuzkidura-alojamenduak sustatzeko 2010eko ekainaren 9an Eusko Jaurlaritzaren garai hartako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta Eskoriatzako Udalaren artean sinatutako hitzarmena ebaztea lehen esandako arrazoiengatik.

**BIGARRENA.-** Hirugarren Alkateorde Josu Ezkurdia Santamaria jaunari baimena ematea Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan baimena eman dezan erabaki honen gai den lankidetzaz hitzarmena suntsitzeko eta kitatzeko.

#### BOZKETA AURRETIK ESANDAKOAK:

Maidar Otamendik zalantzan jarri du hitzarmena baliorik gabe uztea zuzkidura-alojamendu horientzako kokapen alternatiborik negoziatu gabe Eusko Jaurlaritzarekin. Esan du hitzarmena baliorik gabe uzten bada, bere garaian hartutako konpromiso bat betetzetik libre gelditzen dela Eusko Jaurlaritza, eta uste du egokiena konpromiso hori Jaurlaritzari beste eremu baten betearaztea izango litzatekeela, hau da, ez uztea Jaurlaritza libre, besterik gabe, hartuta zuen konpromiso batetik.

Josu Ezkurdiak erantzun dio ziur dela hurrengo udalbatzarrak egin ahal izango diola planteamendu hori Eusko Jaurlaritzari.

#### **7.- KIROL ARLOKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak 2016ko urriaren 18an hartutako erabakiz, kirol arloko zerbitzuak emateko kontratua E-GOITEK S.L. enpresarik esleitzea erabaki zuen ondoren esango den esleipen prezioan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistaren proposamenerako zehaztapenen pean:

Kirol jarduerak eta ikastaroak emateko zerbitzua: 24,97 € orduko gehi % 21eko BEZari dagozkion 5,24 euro.

Kontratuaren xede diren gainerako zerbitzuak: 169.560 € urteko gehi % 21eko BEZari dagozkion 35.607,6 euro.

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa zen, dagokion kontratua formalizatutako egunetik kontatzen hasita, eta urtero luzatu daiteke, gehienez ere beste 2 urtez.

Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikularen arabera.

Udalbatzarrak, 2018ko irailaren 27an, kontratuaren lehenengo luzapena baimentzea erabaki zuen.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratuaren bigarren luzapena egitea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, IRABAZI taldeko zinegotzia abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzan kirol arloko hainbat zerbitzu emateko kontratua bigarren aldiz luzatzea URTEBETEZ, baldintza agiriko bosgarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **8.- HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN 2. LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2016ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eskoriatzako hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren adieraziko den esleipen prezioan (BEZ barne). Kontratua baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzei eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunei lotuta egongo da.

⑩ DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: 148.886,87 €

⑩ AUKERAKO ERAIKIN EDO GUNEAK

Udaletxea: 22.416,72 €

Kultur etxea: 11.743,22 €

Musika Eskola : 4.742,38 €

Kiroldegia: 28.356,11 €

Pilotalekua: 15.178,34 €

- GARBIKETA BEREZIA EGITEKO AUKERAKO ZERBITZUA

Ibarraundi Museoa: 46,06 €

Zaldibar antzokia: 69,08 €

Pilotalekua: 345,4 €

Udal etxebizitzak: 276,32 €

Kultur etxea: 46,06 €

Kontratu honek BI URTEKO iraupena zuen 2016ko martxoaren 16tik kontatzen hasita, eta beraz, 2018ko martxoaren 15era arteko indarraldia.

Administrazio baldintza partikularren agiriko bigarren baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez, eta kontratuaren iraupen osoa ezingo da LAU URTE baino handiagoa izan. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikuluaen arabera.

Udalbatzarrak, 2018ko otsailaren 27an, kontratuaren lehenengo luzapena baimentzea erabaki zuen.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratuari bigarren luzapena egitea, Udalak ez baitu behar besteko baliabide material eta pertsonalik zerbitzua emango dela bermatzeko.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikuluaen arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, IRABAZI taldeko zinegotzia abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Udalaren jabegoko hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua bigarrenez luzatzea, beste URTEBETEZ, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Kontratua arautzen duen baldintza orrietan berariaz jasotzen da kontratu honetan ez dela bidezkoa prezioak berraztertze formula.

**HIRUGARRENA.-** 148.886.87 euroko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko dagokion aurrekontu aplikazioaren kargura. Diru kopuru hori kontratuaren lehenengo urterako kontratatutako zerbitzuen kostuari dagokio.

KONTZEPTUA

GASTUA (€)

PARTIDA

Luis Ezeiza Herri Eskola	37.682	01.00.227.323.40.01
Haurreskola	15.687,74	0100.227.323.30.01
Biblioteka	10.353,49	0100.227.332.10.01
Kulunka Haurtzaindegia	14.726,45	0100.227.323.10.01
Ibarraundi Museoa	16.633,41	0100.227.333.20.01
Ludoteka	5.152,05	0100.227.337.30.01
EPA	2.936,00	0100.227.326.20.01
Elkarteen txokoa	1.327,37	0100.227.341.60.01
Kiroldegia	35.067,63	0100.227.342.20.01
Kiroldegiko garajea	728,32	0100.227.342.20.01
Geltoki zaharra	1.169,90	0100.227.153.40.01
Zaldibar antzokia	7.017,69	0100.227.333.30.01
Artxiboaren lokala	404,96	0100,227.332.20.01

#### **9.- HAUTESKUNDE MAHAJETAKO KIDEAK HAUTATZEKO ZOZKETA.**

Hauteskunde Erroldako Bulegoak utzitako CONOCE aplikazioa erabiliz, GORTE NAGUSIETARAKO apirilaren 28ko hauteskunde egunerako hauteskunde mahaiak zozketatu dira, indarrean dagoen Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 26. artikulua agindutakoa betez.

Ondoren, aho batez, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** Alkatearen esku uztea, Eskoriatzako Udaleko bozeramaileen batzordeak lagunduta, eskualdeko hauteskunde-batzordeak interesdunei alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik gelditu daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketaz aukeratzeko ahalmena.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:15ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta fecha 25 de marzo de 2019 y de forma expresa de la Resolución por la que se acuerda aprobar los expedientes de modificación de créditos N° 4/2019, 5/2019, 6/2019 y 7 /2019.

## **2.-INCREMENTO DE LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL DE ESTE AYUNTAMIENTO**

Al amparo de lo contemplado en el art. 3.2 del Real Decreto-Ley 24/2018 , de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito de sector público y art. 2 de la Ley 2/2019, de 14 de febrero, de medidas presupuestarias urgentes para el ejercicio 2019 en materia de retribuciones y otros aspectos relativo a la prórroga, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

3. Aprobar, con efectos 1 de enero de 2019, un incremento del 2,25 % respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, de las retribuciones del personal al servicio de este Ayuntamiento
4. Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina de abril.

## **3.-BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS**

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

Liquidaciones del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana

CONCEPTO/PLAZO/Nº	CANTIDAD €	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
090 2018 01 106	123,39	URCELAY GURIDI ANAI- ARREBAK	MINUSVALÍA
090 2018 01 105	205,64	URCELAY GURIDI ANAI- ARREBAK	MINUSVALÍA
090 2018 01 094	414,25	RIBEIRO COSTA LUCI	MINUSVALÍA
090 2018 01 110	414,25	VINAGRE CARRASCO JOSE IGNACIO	MINUSVALÍA
090 2018 01 107	476,96	URIBE-E ANDETXAGA JOSE ANTONIO	MINUSVALÍA

**Multas :**

CONCEPTO/PLAZO/Nº	CANTIDAD €	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
